



Irudia:
Ibai Gandiaga

Azalaren egilea Asier Larraza



Ula Iruretagoiena *

8 urtetik hona Asier Larrazak (Zumarraga, 1975)
argazkilaritza munduan lanean dihardu.

Asierren begiradaren erretratu arkitektura, objektuak, moda
edo paisaia izan dira, bestek beste.

Argazkilaritza ikasketak Britainia Handian
burutu zituenetik, Asier argazki-lengoaiaren bidez hainbat
hausnarketa pertsonaletan lanean dabil, argazkiaren bitartez
ikuslegoaren ohiko ikuspegiak aberastu
eta errealtatea ulertzeko
beste modu batzuk eskaini nahian.

Zein da gaur eguneko argazkilaritza munduari egiten diozun kritika?
Gaurko argazkilaritzaren merkatuaren tendentzia, mezu argi eta
definitu bat eskatzea da. Mezuaren irakurketa erraza gertatzen ez
denean, aldiz, ikuslegoaren gain jartzen da erantzukizuna, eta artistaren
erreferentzia zehatzen ezagutza ez baduzu, zaila da ulertzea, eta elitista
bihurtzen da. Euskal Herrian, bestalde, oraindik ere argazki polit bat
eskatzeko da, teknikoki ongi garatua. Hau ez dago gaizki, baina argaz-
kilaritzaren historian mende hasieran egindako argazki-eredua da, eta
argazkilaritzak bilakaera oparoa izan du.

*Arkitekturen mundu digitalak aldaketak eragin baditu, argazkilaritzan,
zeresanik ez. Argazki-kamera digitalaren demokratizazioak gizarteak
argazkiarekiko duen harremana erabat aldarazti du, argazkia ateratzeko
eratzasuna handia da, eta argazkiak gure bizitzaren narratzaile dira.*

Oraindik prozesuaren hasieran gaude eta goizegi da ona denentz
esateko. Argazkilaria lanbiderako ez da batere ona izan, noski. Baina ar-
gazkia gizartearen elementu erabilgarri bihurtu da. Egungo teknologia-
ren erabilerek ahalbidetu dute errealtate artifizial baten irudikapenean
islatzeko aukera. Gazteek argazkia ez dute bakarrik beren errealtatea
adierazteko erabiltzen, areago beren errealtatea aldatu egiten dute,
argazkia egiteko. Errealitatetik guztiz alderatzeko bide arriskutsua izan
daiteke, baina kanpotik aztertze oso interesgarria iruditzen zait. Be-
netako argazkilaritza egunerokotasunean erabilitako argazkian dagoela
sinesten dut, eta ez artelan handietan.

Sormeneko lan-prozesuen aldekoa zara zu.

Artelaren egileak bere lanarekiko eta ikuslearekiko onest izan behar
duela uste dut. Artelanak ezin du alde aurretik ezarritako mezu bat
eskaini behar, baizik eta gogoetaren ondorioa behar du izan. Nik
ezin dut lana hasi, zer nahi dut?, nola nahi dut? galderen erantzuna
ezagututa. Modu horretan lan egiteak ez du niretzat inolako zentzurik.
Galderen erantzuna lana garatu ahala aurkituko dut, aurkitzen baldin
badut! Argazkia bestela irudi bat izatera sinplifikatzen da, mezua hitzez
eta irudi batez azaltzerik bada, argazkia katalogo baten pieza bilakatzen
da, eta argazkiak eman ditzakeen ñabardura aukera guztiak desagertzen
dira. Argazkia irudi polit bat baino askoz gehiago ere bada.

Zein dira argazkilaritzaren bidez lantzen dituzun gaiak?

Nire lan-eremuak bi dira nagusiki: pertsonen erretratu eta paisaia.
Erretratu ez da estudioko lan bat eta jendearekin komunikatzeko bide
bat da niretzat, hau da, bizipen pertsonal bat. Erretratatu beharreko
pertsonaren eta bion arteko harreman-lana dago argazkia atera baino
lehen, eta lan-prozesu horren ondorioa izango da argazkia. Nolabait
esateko, argazkia bitartekari, nire lagunekin harremanean izateko beste
modu bat da, eta ez dut uste emaitzak bestelako baliorik duenik. Eta
bestalde, paisaia nik beti izan dudana kezka da, paisaia, gu inguratzen
gaituen elementu guztien lotura-gune gisa ulerturik, dituen elementu
guztiek: naturalak eta artifizialak.

*Paisaiaren ezaugarriek lekuko kultura baldintzatzen dutela baieztatzen
duzu. Nola iritsi zara ondorio horretara?*

Horren guztiaren garrantziaz Ingalaterran igaro nituen 4 urteetan
ohartu nintzen. Bertan izandako larritasunen erruduna paisaia izan
zela uste dut. Zumarragan 2 mendiren erreferentzia izan dut beti eta
eguraldiaren berri izaterik nuen. Ingalaterran bizi nintzeneko urteetan,
paisaia erabat desberdina zen: laua, begirada zabalagoa lortzeko ezin-
tasuna eta erreferentzia bakarra aurreko bizilagunaren hesi berdea zen.
Ingalaterra eremu txikietan zatitua dago eta zure ikuspegia mugatzen
duen zerbait dago beti. Horrek, dudarik ez, bertako kulturaren eragina
du. Nire gertuko paisaia, aldiz, oso bailara estu eta malkartsuek osatzen
dute eta gorakako erreferentziarekin bizi gara, nahiz eta agian horretaz
jabetu ez.

Gizartea bere erreferente geografikoen emaitza da; logikoki ezin
gara pertsona berdina izan, Ipar Euskal Herrian jaio, edo Alemania
erdialdean jaio. Erreferentzia geografikoen erreferentzia kulturalak
baldintzatzen dituzte, eta gure inguruneak eta paisaiak gure izaera eta
jarreraren eragin zuzena dute.

Zein esanabi du kostaldeak zuretzat?

Kostaldea paisaiaren beste elementu bat balitz bezala tratatu izan
dut, eta, beraz, ez nuke alde batetik kostaldea eta bestetik barnealdea
bereiziko. Izan ere, gure kostaldearen ezaugarri bat da itsasoa mendiari
oso loturik egotea, menditik itsasoan bat-batean sartzen gara, oso gertu
daude gainera. Paisaiaren elementuak azpiegiturak eta industria badira,
kostaldea osotasun horren partaide da ere bai. Bestalde kostaldearen
irudikapenean muga-izaera nagusitzen da, marra bat definitzen baitu,
eta harago so eginez, zeruertzen bigarren marra bat ere dugu ikusgai.
Ur-lehor ukipen zonalde honek gizakiaren aktibitate anitz jaso ditu
(arrantza, garrarioa, turismoa...) Baina gainera kostaldea gogoetarako
edo kontenplazio hutserako eremu aproposa da, eszena eta irudi
ezohikoak eragiten baititu. Erabilera abstraktu horrenganako interesak
gidatu du azalaren garapena.



* Ula Iruretagoiena arkitektoa eta EHUko irakaslea da.